

## Gizarte Ekimeneko Ikastetxeak



www.irakaskuntza.lab.eus  
676 379 142 [Araba]  
674 094 466 [Gipuzkoa]  
689 285 088 [Bizkaia]  
666 778 035

## Inoiz amaitzen ez den istorioa

**Sinatzeko ahalmena duten aldeak ezintasun ikaragarria erakusten ari dira**

30 mahai negoziatzaile baino gehiago egin ondoren, Patronalek bilerara dokumentu berri bat ekarri arren, bertan jasotako proposamenak oso gutxi aldatu dira. "A priori" greba amaierako akordioa sinatu zenetik egin beharreko lana erreza zen; adostutakoa lan hitzarmenean txertatzea. Akordiotik moztu eta itsatsi dagokion artikuluetan. Baino hori ez da gertatzen ari. Kristau Eskolak eta AICE.-IZEAk behin eta berriro adostutako edukiak bernegoziatu nahi dituzte murrizketak proposatuz. LAB sindikatuaarentzat jarrera hori onartezina da.

Gauzak horrela, hau da izandako azkenengo mahaiaren ondorengo egoera:

**Soldata taulak:** 2025. urterako D.B.H., Batxilergo eta Lanbide Heziketako langileei patronalak ez die akordioan jasotzen den %16ko soldata igoera aplikatu nahi, eta gehiengoa duen sindikatua ados dago horrekin. % 15,43a aplikatuko zaie, hau da LABek akordio laboralean ekiparazioaren bidean lortu zuena. Argi geratzen da beraz, gehiengoa duen sindikatuak ez zuela ezer lortu soldatetan eta gezurretan ibili zaigula, bai langileei, baita beste sindikatuei ere. Hori gutxi balitz, patronalarekin duten konplizitatea agerian geratzen ari da.

**Kontratazioak:** Finantziazia publikoa izan arren eta Eusko Jaurlaritzarekin akordio bat sinatuta eduki arren, ez dituzte pausuak eman nahi meritu, gaitasun, berdintasun eta publizitate printzipioetan oinarrituta egin behar diren kontratazioak gardenak izateko.

**Birkokapen araudia:** Greba bukaerako akordioan langile bat ezin bada birkokatua izan, 26 eguneko mugarik gabeko indemnizazioa jasotzeko eskubidea duela adostu genuen. Neurri hau ikastetxe batzuek langileak birkokatzeko jartzen dituzten trabak diruz zigortzeko helburuz adostu genuen. Orain aldiz, indemnizazioari 12 hilabeteko tope bat jarri nahi diote zigorra leuntzeko.

**Enplegua mantentzeko neurriak:** Greba bukaerako akordioan adostu genuen 3 batzar egin behar genituela matrikulazioaren egoera aztertzeko zein figura berrien sorrerarako (euskalduntzeko, aniztasunari trataera emateko, hezkidetza, IKT.....), eman daitekeen enplegu suntsiketa ekiditeko. Aipatutako bilerak egin gabe daude KE eta AICE-IZEAren interes ezagatik eta gehiengoa duen sindikatuaren utzikeriagatik. Negoziazio mahaietan LAB da behin eta berriro puntu honi garrantzia ematen dion sindikatu bakarra.

**Lizentziak eta baimenak:** Hainbat lizentzia eta baimenetan lege aldaketak eman dira hobekuntzakin. Hala ere, eskubide horiek egokitzea behin eta berriro eskatu arren, ez dituzte proposatutako artikulatu berrian txertatzen.

LAB sindikatuak dituen tresna juridiko zein ekintza sindikala erabiliko ditu sinatutako akordioa bete eta errespeta dezaten eta horrela adieraziko diegu Patronalei martxoan izango dugun hurrengo mahai negoziatzailean.

**ANIMO ETA AURRERA!  
BORROKAK MEREZI DU!  
GORA LANGILEON BORROKA!**

**BACARA**  
*zurekin* **BACARA** *Un sindicalismo diferente*

**LAB**  
EUSKAL  
SINDIKALISMO  
ERALDATZAILEA

## Gizarte Ekimeneko Ikastetxeak



## La historia interminable

**Las partes con poder de firma están demostrando una enorme incapacidad**

Tras la celebración de más de 30 mesas negociadoras, a pesar de que las patronales han aportado un nuevo documento a la reunión, las propuestas recogidas en la misma han variado muy poco. "A priori" desde que se firmó el acuerdo de fin de huelga era fácil el trabajo; incorporar lo acordado al convenio. Corta del acuerdo y pega en los artículos correspondientes del convenio. Pero eso no está pasando. Kristau Eskola y AICE.-IZEA quieren renegociar reiteradamente los contenidos acordados proponiendo incluso recortes. Para el sindicato LAB esta actitud es inaceptable.

Así las cosas, la última mesa mantenida y la situación posterior es la siguiente:

**Tablas salariales:** Se aplicara un incremento salarial del 15,43% a los trabajadores de ESO, Bachillerato y Formación Profesional para el año 2025. Es decir, lo firmado por LAB en el Acuerdo laboral el 1 de junio del 2023. El sindicato mayoritario esta en consonancia con las tablas del Departamento de Educación en Pago Delegado.

**Contrataciones:** Aunque la financiación sea pública y hayan firmado un acuerdo con el Gobierno Vasco, no quieren dar pasos para la transparencia de las contrataciones que deben realizarse bajo los principios de mérito, capacidad, igualdad y publicidad.

**Normativa de recolocación:** en el acuerdo de fin de huelga firmamos que si un trabajador o trabajadora de la bolsa no puede ser recolocada, tiene derecho a una indemnización de 26 días sin tope en la antigüedad. Acordamos esta medida para castigar económicamente las trabas que algunos centros ponen a la recolocación del personal. Ahora, en cambio, quieren poner un tope de 12 meses a la indemnización para suavizar la medida.

**Mantenimiento del empleo:** En el acuerdo de fin de huelga acordamos celebrar 3 reuniones para analizar la situación de la matriculación y la creación de nuevas figuras (euskaldunización, atención a la diversidad, coeducación, TIC...) para evitar la destrucción de empleo. Las citadas reuniones están pendientes por el desinterés de KE y AICE-IZEA y la desidia del sindicato mayoritario. LAB, es el único sindicato que da importancia a este punto una y otra vez en las mesas de negociación.

**Licencias y permisos:** Se han dado cambios legislativos y mejoras en varias licencias y permisos. Sin embargo, pese a las reiteradas peticiones de adaptación de estos derechos, no los incorporan al nuevo articulado propuesto.

LAB utilizará los instrumentos jurídicos y la acción sindical de que dispone para que cumplan y respeten el acuerdo firmado y así se lo trasladaremos a las patronales en la próxima mesa negociadora que tendremos en marzo.

ANIMO ETA AURRERA!  
BORROKAK MEREZI DU!  
GORA LANGILEON BORROKA!

---

**BACARA** *zurekin* **BACARA** *Un sindicalismo diferente*

**LAB'**  
EUSKAL  
SINDIKALISMO  
ERALDATZAILEA